

Malenkonia

Iruditzen zitzaidan ba, Ur, zuk ere bihotz *posmoa* baduzula, zuk ere baduzula zure baitan *Txillardegirena egiten* hasten den zeure zu horri keinu esajeratuak egiten dizkion beste zu trabestia!

Arrazoi duzu, jakina, eta ulertzen dizut, bat ahitzen ari dela sine-tsirik arduragabea eta ernegagarria suertatu behar du txolinkeriatan aritzeak, gertatzen ari denari ez-ikusierena egitea. Matrakosoa, nekagarria, gorrotagarria deritzogu gure buruak errebindikatzen aritu beharrari baina oraindik ere, uste dugu, funtzionala dela. Itsusia, beraz, zure papera.

Kontua da zergatik deritzogun funtzionala matrakari?

Eta Josik dioen moduan behin galderekin hasita ez da amaierarik.

Salbatuko gaitu ahitzetik estatuak? (Nire buruari egiten dizkiodan galderak dira). *Guago* izanen gara estatu batekin? Ez liguke Historiak ironia eginen Estatua lortu orduko Multinazionalen Inperioa ezarriz? Ez litzateke gure estatua nagusiki espainolez eta frantsesez mintzatuko eta ikurretan bakarrik euskal agertuko? Eta sortu ondoren oskol hutsa balitz?

Ederki ulertzen zaitut, Ur, ni ere ataka horretan nagoelako. Euskal Herria ataka horretan dagoelako eta ehun urte, gutxienez, daramatzalako ataka berean. Luzeegi, zer esanen dizuet.

Posible ote da ataka hori ez balego bezala bizitzea eta bizitzearen poderioz ataka desagertzea? Ez dakit, baina lehertzen nauena zera da ataka horrek nola lotzen gaituen malenkoniari. Lehen asko maite nituen poema malenkoniatsuak iraganean galdutako objektu idealizatua (orainetik eraikia, jakina) ezin errekuperaturik aritzen diren poema horiek, baina azken hamar urtetatik hona, neurri batean, “faltsuak” iruditzen zaizkit.

Sarriren Izen zaharrak bezalako poemei buruz ari naiz. Ederregi agertzen gara –herrialde estuan



Juanjo Olasagarre

Apalategi

Basterrvetxea

sortu ginen (...), merkataria abertsek merke edo kario/erosten dituzte gure lurra/eta badoaz urtaroak eta gu ere bagoaz); euskara (Euskal Herria?) etorkizunean hilik agertzen da (Ursouia, Itchasou/Trouleguy (...)) “Jendeak *misterio* aire batekin ahoskatuko ditu leku izenok”–.

Euskal Herri galdua misterio izena eta grafia erdaldunarekin idealizaturik geratzen da

poemaren tonu malenkoniatsua azpimarratuz –jendeak bere ihardunean beste kultura bateko (hil ala bizi, berdin da) izenak ahoskatzean ukitu arraro batekin egiten duela onarturik *misterio* hitza gehiegizkoa iruditzen zait–.

Euskalduntasuna eta gaytasun konparatuz, nigan biltzen diren adar bi, eta jauziak jauzi, gay naizen aldetik ni ere egon nintekeen armairuan sarturik mundua nire kontra dagoela lanturu, mundua heterosexualez beterik dagoela eta gorrotoan bizitzen, areago heterosexualeta objektu malenkoniatsua bihurturik; gizarteak hor paratu ninduen baina mugitu egin naiz. (Libra nazala jainkoak lezioak ematetik!).

Ez dakit, ezin dugu nazio, koadrila, hiztun saldo, pop talde edo delakoa garela euskal herritarrok –mesedez, filosofo batek egin dezala gure identitatea izendatzeko erabiltzen ditugun izenen azterketa dekonstruktibo-maribollero-politiko, ja– horrelako mugimendu estrategiko bat egin eta Kixmi sindromea saihestuz bagina bezala bizitzen hasi –egin, egiten dugu gainera, aldizkari hau da adibide bat–. Inozente bat naizela. Bai. Eta bidean hiltzen baldin bagara ba, hilik, zer egingen diogu, gure ondorengoak ere zerbait izanen dira.

Ezin duguna zera da harriari buelta eta buelta ari eta ari urteak eta urteak horrela segitu eta segitu. Gehiegi daramatzagu. Hortik fribolitataea, izan ezinaren zama astuna –aste honetan landu dut ikasleekin *Bizi nahi* Salvatore Mitxelena-ren poema– arintzeko balio du. Gora posmodernitatea! (Txantxetan bada ere!). ■

« Posible ote da ataka hori ez balego bezala bizitzea eta bizitzearen poderioz ataka desagertzea? Ez dakit, baina lehertzen nauena zera da ataka horrek nola lotzen gaituen malenkoniari »